

OHARRA: BEZEROA BAZARA, KONTRATUAK ALDA EZIN DITZAKEEN ZENBAIT LEGE-ESKUBIDE IZAN DITZAKEZU. LIZENTZIA HONETAKO EZEIN XEDAPENEK EZ DU LEGE-ESKUBIDE HORIEK ALDATZEKO INDARRIK, INDARREAN DAUDEN LEGEEK HALA DEBEKATZEN EZ BADUTE. LEGEAK LIZENTZIA-BALDINTZA HAUEK BESTE HIZKUNTZA BATERA ITZULTZEA BEHARTZEN BADU, INGELESEZKO LIZENTZIA-BALDINTZAK IZANGO DIRA KONTUAN HARTUKO DIRENAK, INGELESEZKO BERTSIOAREN ETA BESTE HIZKUNTZA BATEKOAREN ARTEAN ALDEAK SORTUZ GERO. LIZENTZIA-BALDINTZA HAUEK INGELESA EZ DEN BESTE HIZKUNTZA BATEAN EMATEN BAZAIZKIZU, RIM-EK ZURETZAT EGOKIAGOA IZAN DADIN SOILIK EGIN DU.

**BLACKBERRY SOFTWAREAREN TZAKO HOBETUTAKO GMAIL EDO GOOGLE
MAIL PLUGINAREN
LIZENTZIA-BALDINTZAK**

Research In Motion Limited edo haren kideetako batek (“RIM”) atseginez jartzen dizu doan eta eskura honako eskukoaren software aplikazio hau:

BlackBerry-ren softwarearentzako Hobetutako Gmail edo Google Mail Plugina (“Software Bezeroa) eskuko BlackBerry-en softwarea da eta zenbait eskuko produktu erabiltzeko aukera ematen dizu, Google Inc. enpresak eskainitako posta-zerbitzuetan, Gmail-en edo Google Mail-en, sartu eta haiek erabiltzeko (“Atzitutako zerbitzua”)

SOFTWARE BEZEROA RIM-EK ZURETZAT BAIMENDU DU RIM-EN BAIMENDUTAKO BLACKBERRY SOFTWARE LIZENTZIA-AKORDIOAREN ARABERA (“BBSLA”) ETA GEHIGARRI HONEK ALDATZEN DUEN ERAN. GEHIGARRI HONI ETA BBSLA-RI OROKORREAN ERREFERENTZIA EGITEAN BEZEROAREN SOFTWAREAREN “LIZENTZIA-BALDINTZAK” DERITZE. Dokumentu honetan besterik adierazi ezean, letra larriz idatzitako hitz guztiek BBSLA-ko baldintzetan ere letra larriz erabilitako hitz beren esanahia izango dute.

LIZENTZIA-BALDINTZA HAUEK, BEHEAN AGERTZEN DEN “ONARTZEN DUT” AUKERAN KLIK EGINDA ONARTUZ GERO, SOFTWARE BEZEROAREN LIZENTZIA-BALDINTZA HORIEK JARRAITZEA ONARTZEN DUZU ZUK BANAKAKO GISA EDO, ZURE ENPRESAREN EDO BESTELAKO ERAKUNDEREN BATEN IZENEAN BEZEROAREN SOFTWAREA ONARTZEKO AHALMENA IZANEZ GERO, ZUK ORDEZKATUTAKO ERAKUNDEAK (EDONOLA ERE “ZU”).

“BBSLA” BAT-EGITE BAT DA: ALDE BATETIK, LEHENGO BLACKBERRY ENPRESAREN SOFTWARE ZERBITZARIAREN LIZENTZIA-AKORDIOAREN, ETA, BESTETIK, BLACKBERRY AZKEN ERABILTZAILIEN SOFTWAREAREN LIZENTZIA-AKORDIOAREN ARTEKOA. Honako hauek finkatzeko asmoarekin: (a) oinarritzko baldintzen arteko koherentzia lortzea Zure BlackBerry Soluzioetan; eta (b) argitasuna lortzea BlackBerry Eskuko Softwareko atal bakoitzari aplikatu beharreko lizentzia-baldintzei dagokienean, edozein delarik ere eskuratutako Eskuko BlackBerry Softwarea, LIZENTZIA-BALDINTZA HAUEK GORAN ADIERAZITAKO MODUAN ONARTUZ, BESTE HAU ERE ONARTZEN DUZU: LIZENTZIA-BALDINTZA HAUEK ONARTUTAKO EGUNEAN, BBSLA-K ORDEZKATZEN DUELA SINATUTAKO BESTE EDOZEIN RIM-EN SOFTWARE LIZENTZIA-AKORDIO, NAHIZ ETA AKORDIO HAIK BESTELAKO EDOZEIN SOFTWARE MOTARI APLIKATU, ZURE BLACKBERRY SOLUZIOAREN PARTE GISA ERABILTZEN DUZUNEAN. BBSLA

HAU IRAKURTZEKO ESKURAGARRI EZ BADUZU, WWW.BLACKBERRY.COM HELBIDEAN AURKI DAITEKE EDO LEGALINFO@RIM.COM HELBIDEAN RIM-EKIN HARREMANETAN JARRITA.

LIZENTZIA-BALDINTZA HORIEI BURUZKOGALDERAREN BAT EDO KEZKAREN BAT BADUZU, MESEDEZ, JARRI HARREMANETAN RIM-EKIN HELBIDE HONETAN: legalinfo@rim.com. ◀ LIZENTZIA-BALDINTZA HAUEK ONARTZEKO PRESTATUTA EDO GAITUTA EZ BAZAUDE, EZ DESKARGATU, INSTALATU EDO ERABILI SOFTWARE BEZEROA EDO HAREN EDOZEIN ZATI; IZAN ERE, EZ DUZU HORRETARAKO ESKUBIDERIK.

BALDINTZA OROKORRAK

Software Bezeroak Atzipen Zerbitzua erabiltzea eta Zu bertara sartzea errazten du. RIM-ek atseginez jartzen du Software Bezeroa eskuragarri Zuretzat, baina horretarako behar beharrezkoa da Zuk garbi ulertzea, adieraztea eta adostea Software Bezeroa Hirugarren baten zerbitzua dela eta horrek ahalbidetzen duela erakustea Hirugarren baten Softwarea, Hirugarren baten Zerbitzuak, Hirugarren baten Edukia, Estekadun webguneak edo Google Inc. enpresak hornitutako Beste Webgune batzuk edo beste hirugarren batzuenak, zeinak ez dauden RIM-en kontrolpean. Norekin ari zaren egiaztatu beharko zenuke eta aplikatu daitezkeen akordio guztien baldintza guztiak zein diren jakin beharko zenituzke; baita, baina horretara bakarrik mugatu gabe, lizentzia-baldintzak, ordainketa-baldintzak eta horrekin lotutakoak (baita, baina horretara mugatu gabe, berme-, itzulketa- eta diru-itzultze baldintzak), pribatutasun-baldintzak, pribatutasun-ekarpenak eta segurtasun-funtzioak ere zein diren, zure informazio pribatua babesteko eta zure segurtasun pertsonala bermatzeko. Zure Eskuko Produktuaren Software Bezeroko Atzipen Zerbitzura sartzeko eta hura erabiltzeko: (a) Atzipen Zerbitzuko kontua eguneratua eta aktibo izan behar duzu; Zerbitzuaren kontua Atzipen Zerbitzuarekin adostu dituzun arauak eta baldintzek zuzenduko dute; (b) Zure Konexioko Zerbitzariaren Hornitzaileak Zure Eskuko Produktuaren bidez Atzipen Zerbitzura konektatzen utzi behar duzu; eta (c) Software Bezeroak zure Eskuko Produktuaren Eskuko BlackBerry Softwarean funtzionatzeko moduan egon behar du.

SOFTWARE BEZEROAREN BERARIAZKO BALDINTZAK

1. “BlackBerry Eskuko Softwarea”ren definizioa. Dokumentu honen bidez, Software Bezeroa BBSLA-n agertzen den “Eskuko BlackBerry Softwarea”ren definizioan sartzen da.

2. Babes Mugatua, Bermerik ez eta Erantzukizunik Ez. Akordio honetan kontuan hartzen denaren arabera, Bezeroaren Softwarea ez badabil Zure Eskuko Produktuan instalatu eta hurrengo laurogeita hamar (90) egunen barnean, jarri harremanetan RIM-ekin eta RIM, enpresa gisa, ahaleginduko da arazoa aldi baterako edo behin betiko konpontzeko irtenbidea ematen (behin betiko edo aldi baterako zuzenketak RIM-en arazoizko diskrezioarekin emango zaizkizu: dela telefono edo mezu elektronikoko bidezko bezeroaren arreta bidez, dela eskuragarri dituen software konpondu edo berriagoen bidez, dela RIM-en webguneko edo dela RIM-ek gomendatzen dizun bestelako modu batean). Halere, Bezeroaren Softwarearen izaera dela-eta, badakizu eta onartzen duzu, RIM-ek ez duela inongo kontrolik bere eginbide eta funtzio askori dagokienean eta balitekeela Zuk aurkitutako arazoa ebazteko gai ez izatea, nahiz eta, enpresa gisa, ahaleginak egin. Software Bezeroa RIM-en BlackBerry Eskuko Softwarearen doako gehikuntza gisa ematen zaizu eta Hirugarren baten Zerbitzua erabiltzea edo **Hirugarren baten Softwarean, Hirugarren baten Zerbitzuetan, Hirugarren baten Edukietan, Estekadun Webguneetan edo Bestelako**

Webguneetan sartzea errazten dizu. Era berean, eta Zure eskualdeko legeriak debekatzen ez duen bitartean: (a) xedapen honek Software Bezeroaren BBSLA-n adierazitako Eskuko BlackBerry Softwarearen aurreko edozein berme ordezkatzeko eta gainjartzen du, eta Software Bezeroarekin duzun edozein arazo zure erantzukizun dela adierazten du; (b) Software Bezeroa "DAGOEN DAGOENEAN" eta "ESKURAGARRI DAGOEN MODUAN" eskaintzen zaizu; (c) BBSLA-N ERANTZUKIZUNARI BURUZ ADIERAZITAKO MUGEZ, ESKLUSIOEZ ETA EZESPENEZ GAINERA, RIM EZ DA BEZEROAREN SOFTWAREAREN ESKURAGARRITASUNAREN, ERABILERAREN, ERRENDIMENDUAREN EDO ERRENDIMENDU EZAREN ERANTZULE EGITEN, EZTA ATZIPEN ZERBITZUARENA, HIRUGARREN BATEN SOFTWAREARENA, HIRUGARREN BATEN ZERBITZUENA, HIRUGARREN BATEN EDUKIENA EDO BESTE ESTEKADUN WEBGUNEENA ERE; ETA EZ DA ERANTZULE EGINGO SOFTWARE BEZEROAZ KANPO, ATZIPEN ZERBITZUAZ KANPO EDO HIRUGARREN BATEN SOFTWAREAREN, **HIRUGARREN BATEN ZERBITZUEN**, HIRUGARREN BATEN EDUKIEN EDO BESTE ESTEKADUN WEBGUNEEN KANPO SORTUTAKO KALTEENA, EDOZEIN IZANIK ERE KALTE HORIEN ARRAZOA ETA RIM-EK HALAKO KALTEEN BERRI IZAN ALA EZ IZAN; eta (d) baliteke Atzipen Zerbitzua denbora tarte batzuetan ezin eskuratu izana edo baliteke Software Bezeroak eten bat egitea zu Atzipen Zerbitzua erabiltzeko gaitzerakoan. Kasu horietako bat gertatuz gero ez duzu RIM-en kontrako bitartekorik. Honako hau ulertu eta adostu duzu: RIM-ek gastu handiak ordain ditzakeela Bezeroaren Softwarearengatik eta balitekeela Bezeroaren Softwarea ezin eskaini izatea ezespen, mugatze eta bazterketa horiek izan ezean.

3. Deuseztatzea. Aurrez esandakoa mugatu gabe, eta BBSLA-n zehaztutako RIM-en deuseztatze eskubideekin batera, Software Bezeroaren, Atzipen Zerbitzuaren eta Hirugarren baten Softwarearen, **Hirugarren baten Zerbitzuen**, Hirugarren baten Edukiaren edo Estekadun Webguneen edo Bestelako Webguneen izaera dela-eta, RIM-ek horretarako eskubidea erreserbatzen du, baina ez du inolako obligaziorik, Bezeroaren Lizentziarekin duzun Zure lizentzia edonoiz eta edozein arrazoigatik deuseztatzeko, zuri ohartarazi gabe. Hala ere, baliteke, RIM-ek, enpresa gisa, ahaleginak egitea deuseztapenaren berri ematen dizun oharra zuri helarazteko.

4. Gatazka. Gehigarri honen edozein baldintza BBSLA-ko baldintzekin edota beste gehigarri eta zuzenketetako baldintzekin bat etorriko ez balitz, baldintzok inkohistente gisa hartuko dira, betiere, Bezeroaren Softwareari dagokienean.

Lizentzia-baldintzok berrikusi ditut eta Bezeroaren Softwarearen Lizentzia Baldintzetan adierazitakoak onartzeko prestatuta eta baimenduta nago.

Onartzen dut

Ez dut onartzen